



EBAZPENA, 2023KO MARTXOAREN 8KOA, HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ ZUZENTZEN BAITIRA HONAKO EBAZPEN HONETAN AURKITUTAKO AKATSAK: EBAZPENA, 2023KO MARTXOAREN 6KOA, HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA, AURREKO IKASTURTEETARAKO BAIMENDUTAKO ZERBITZU-EGINKIZUN ESPEZIFIKOAK LUZATZEKO PROZEDURA EZARTZEN DUENA.

Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2023ko martxoaren 6ko Ebazpenaren bidez, aurreko ikasturteetarako baimendutako zerbitzu-eginkizun espezifikoak luzatzeko prozedura ezartzen da.

Ebazpen horretan hutsak aurkitu direnez, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzakete, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako errakuntza materialak, egitezkoak edo aritmetikoak.

Horrela, eman zaizkidan ahalmenez baliatuz, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- 2023ko martxoaren 6ko Ebazpenaren hitzaurreko hirugarren paragrafoan atzemandako akats material hau zuzentzea, honela:

Honakoa dioenean:

“2023/2024 ikasturtean zerbitzu-eginkizunetan ari diren bitarteko funtzionarioek ezingo dute zerbitzu-eginkizuna luzatu.”

Honako hau esan behar du:

“2022/2023 ikasturtean zerbitzu-eginkizunetan ari diren bitarteko funtzionarioek ezingo dute zerbitzu-eginkizuna luzatu.”

Bigarrena.- Ebazpenaren bigarren ebazpen-zatiaren lehen paragrafoa zuzentzea, akats hau zuzentzeko:

Honakoa dioenean:



“Luzapena eskatu ahal izango dute edo berariaz uko egin ahal izango diote 2022/2023 ikasturtean zerbitzu-eginkizunetan aritzeko baimena lortu duten karrerako funtzionarioek, baldin eta 2023/2024 ikasturtean horretan jarraitu nahi badute.”

Hau esan behar du:

“Luzapena eskatu ahal izango dute, edo berariaz uko egin, karrerako funtzionarioek eta lan-kontratudun langile finkoek, baldin eta 2022/2023 ikasturtean zerbitzu-eginkizunetan aritzeko baimena lortu badute eta 2023/2024 ikasturtean horretan jarraitu nahi badute.”

Hirugarrena.- Ebazpenaren lehenengo ebazpen-zatiko hirugarren paragrafoa zuzentzea, akats hau zuzentzeko:

Honakoa dioenean:

“Prestakuntzan eta Hezkuntzaren Berrikuntzan Laguntzeko Zentroetako (Berritzeguneak) lanpostu hauei buruzko zerbitzu-eginkizunak ere ez dira luzatuko: A01, A02, B01, B02, B03, B04, B05, B06, B07, B08, B09, B10, G01, G02, G03, G05, G06. Izan ere, ez dira mantentzen ezohiko hornikuntza-deialdiak eragin zituzten beharrak:”

Hau esan behar du:

“Era berean, ez dira luzatuko Prestakuntzan eta Hezkuntzaren Berrikuntzan Laguntzeko Zentroetako (Berritzeguneak) A01, A02, B01, B02, B03, B04, B05, B06, B07, B08, B09, B10, G01, G02, G03, G04, G05, G06 lanpostuen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Hezkuntza eta Ikerketa Didaktikoko Zentroetako – Ingurugela – lanpostuen zerbitzu-eginkizunak, ez baitira mantentzen ezohiko hornikuntza-deialdiak eragin zituzten beharrak:”

Laugarrena.- Ebazpen honen hirugarren ebazpen-zatian adierazitakoaren ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Hezkuntza eta Ikerketa Didaktikorako Ikastegien – Ingurugela 2023ko martxoaren 6ko Ebazpenaren eranskineko deialdi espezifikoen zerrendatik kendu behar da.

Bosgarrena.- Ebazpenaren Eranskinean jasotako luzapenaren xede diren deialdien zerrendari, Hezkuntza Premia Berezien Deialdiari dagokion banakatzearen barruan, Entzumena eta Hizkuntza ibiltariaren plazei dagokiena gehitzea.



Seigarrena.- Ebazpenaren Eranskinean jasotako zerrendan ageri den deialdiari dagozkion plazen kopuru txikia ikusita, ez da luzatuko eskabideak aurkezteko epea, hau da, 2023ko martxoaren 13an (astelehena) amaituko da.

ERREKURTSOAK

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatuta baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikuluan eta hurrengoetan, 112.1 artikuluaekin lotuta.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko martxoaren 9a

Blanca María Guerrero Ocejo
LANGILERIAREN KUDEAKETA ZUZENDARIA